

## Kontrol Mozioa

### Easo plazan gazte baten atxiloketari buruzkoa

Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa Gune Publiko, Obra eta Zerbitzuen Batzordean 2021eko apirilaren 19an aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Apirilaren 8an twitter sare sozialaren bidez bideo bat zabaldu da Easo Plazan gertatutako gazte baten atxiloketaren inguruan. Bideoan lau udaltzain ikusten dira gaztea atxilotzen eta indarra erabiltzen, mutila ahuspez lurrean etzanda dagoen bitartean.

Inguruan zeuden pertsonen testigantzen arabera, segurtasun agenteek erabilitako indarra neurritz kanpokoak izan zen. Nekez uler daiteke, Udaltzaingoaren eginkizun nagusia herritarrei laguntzea izanik, administrazio-delitu soil batek, kasu honetan identifikatzeko NANA ez izateak, horrelako ekintza bat eragin izana. Lau orduko atxiloketaren ostean, gaztea aske utzi zuten udaltzain bati ustez eraso egin izaneko salaketarekin eta aldi berean, hemezortzi urteko gazte honek berak jarri du inplikaturako udaltzainen aurkako salaketa, lesioak, legez kanpoko atxiloketa eta salaketa falsua argudiatuz. Beraz, bi bertsio kontrajarri daude, argitu beharrekoak lehenbailehen.

Herritarren Segurtagunerako zinegotziak batzordean honi buruz interpelatua izan zenean, argitu zuen aipaturako atxilotua ez zela adingabea, 18 urte baititu. Baina ez zuen azaldu, ordea, zergaitik erabili zuten hain jarrera oldarkorra gaztearekiko, sareetako bideoan ikus daitekeen moduan.

Era berean, ez zuen argitu erabili zuten immobilizazio-teknikaren arrazoien azalpena, hain arriskutsua eta kritikatu gaur egun, George Floyd gazte estatubatuarren atxiloketaren eta heriotzaren ondorioz, non poliziaren belarriak gaztearen bizkarrean eta lepoan jartzearen ondorioz, arnasa hartzea eragozten dion eta bere osasuna arriskuan jartzen duen.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaltzaingoaren esku-hartze protokolutik kanpo utz dezala pertsona bati lurrean ahuspez jarrita eta belarriekin lepoan eta/edo bizkarrean presioa egiten zaion teknikaren aplikazioa, bai eta atxilotuaren osasuna arriskuan jartzen duen beste edozein atxiloketa-teknika ere.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari martxoaren 8ko Easo plazako gertakariari buruzko barruko espediente informatibo bat ireki dezala, inplikaturako udaltzainen jarduerazuzena izan den ala ez jakiteko.
3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari argitara ditzala Udaltzaingoak bere jarduerarako finkatuta dituen jardueraprotokoloak, etorkizuneko herritarrek argi eta garbi izan dezaten non dauden Udaltzaingoak bere jardueran errespetatu behar dituen mugak.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Donostia, 2021ko apirilaren 23an

Reyes Carrere Zabala  
EHBildu taldeko zinegotzia